



Pandemia baten ondorioz, osasun publikoko larrialdi baten aurreran, Euskadiko Babes Zibileko Plana - Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI) konfiguratzeko prozedura

Aldeko txostena jaso duena, Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen 2022ko ekainaren 22ko ezohiko bilkuran

Aurkeztua izan dena, Pandemiei aurre egiteko Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) aholku-batzordean, 2022ko azaroaren 7an

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2022ko azaroaren 22an egindako bileran eman zaio erabakiaren berri

2022ko azaroaren 22a

AURKIBIDEA

TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
1. SARRERA	8
2. ATARIKO IDAZPURUA.....	9
a) EGINKIZUNAK	9
b) LEGE-ESPARRUA.....	10
3. ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIO ARAU OROKORRAK	11
4. ANTOLAKUNTZA	12
a) ZUZENDARITZA EGITURA	12
i. ZUZENDARIA.....	12
ii. AHOLKU BATZORDEA.....	13
iii. KOMUNIKAZIO ARLOA	14
b) EKINTZA EGITURA.....	15
5. OPERATIBITATEA.....	16
EUSKADIKO BABES ZIBILEKO LURRALDE-PLANA AKTIBATZEA	16
6. BABES ETA KONPONKETA NEURRIAK	17
a) KUDEAKETA ARLOAK	17
b) BIZTANLEEI INFORMAZIOA EMATEA.....	17
I. ERANSKINA	18
EUSKO JAURLARITZAK, LARRIALDIAREN GOBERNANTZAREKIN LOTUTA, COVID-19AREN ONDORIOZKO OSASUN- LARRIALDIAN ZEHAR ONARTU DITUEN AGINDU ETA DEKRETU GARRANTZITSUENAK	18
II. ERANSKINA	27
LABIREN KONFIGURAZIO-ESKEMA, PANDEMIARI AURRE EGITEKO	27

TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Covid-19 pandemiak, dokumentu hau idazten den unean erabat gainditutzat eman ezin denak, eragin duen egoerari erantzun egokia eman behar zaio; eta horretarako, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenen barruan dituen arau-tresnak sortu, egokitu edo aldatu behar dira, besteak beste, Euskadiko Babes Zibileko Plana- Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea LABI, tresna horietako bat baita.

2020ko urtarrilaren 30ean, Osasun Mundu Erakundearen zuzendari nagusiak Garrantzi Internazionalako Osasun Publikoko Larrialdia deklaratu zuen SARS-CoV-2 birusak, Covid-19 izenez ezagunagoa denak, eragindako infekzioaz kutsatutakoak ugaritzearen ondorioz; eta geroago, martxoaren 11n, OMEk pandemia internazionala deklaratu zuen. Martxoaren 13an Euskadiko Babes Zibileko Plana – LABI aktibatu zen eta hurrengo bi urteetan hiru aldiz egon zen aktibatuta, guztira 19 hilabetez. Mundu mailako krisi horretan, Eusko Jaurlaritza eskuragarri zeuden ebidentzia eta praktika onenekin lerrokatu da eta nazioarteko erakundeen gomendio eta jarraibideei jarraitu die, esaterako, Nazio Batuen esparruan OMEk berak edo Europa mailan Gaixotasunen Prebentzio eta Kontroleko Europako Zentroak (ECDC) emandakoei. Estatu mailan ere, herritarren osasunerako mehatxuak dien alerta-egoera edo osasun-larrialdi nazional edo internazionaleri erantzuten erreferenteak diren erakundeekin koordinatu da, esaterako, Alerta eta Larrialdi Sanitarioen Koordinazio Zentroarekin eta Carlos III.a Institutuarekin, Estatuko Osasun Sistemako Lurraldearteko Kontseiluaren eta bere Osasun Publikoaren Batzordearen bidez.

Pandemiako lehen bi urteetan, Covid-19aren ondorioz munduan 6 milioi pertsona hil dira. Gure lurraldean ere inpaktua handia izan da; Euskadin 600.000 positibo baino gehiago egon dira, 32.470 pertsona ingresatuta eta 3.350 ZIUn ingresatuta, eta 6.200 pertsona hil dira; adinez nagusien gaixotasunarekiko hilgarritasuna handiagoa izan da¹. Horrek osasun-sisteman tentsio-aldi handiak eragin ditu.

Herritarrek 2020an etxeko konfinamendu zorrotza bizi izan zuten, 90 egunez, zorrotasun-maila desberdinekin; eta horren ondorengo bi urteetan, aldi batzuetan, neurri zorrotzak ezarri ziren: mugikortasunaren mugak, udal eta lurralde mailako konfinamendua, harremanetan eta gehienez bil zitezkeen taldeetan murrizketak, musukoaren derrigorrezko erabilera, jarduera sozio-ekonomiko askotan murrizketak; neurri horietan guztietan egin

¹ Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza. “Etorkizunerako ikasitakoak. Bi urteko pandemiaren memoria. 2022ko martxoaren 11”. Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako dokumentua.

https://bideoak2.euskadi.eus/2022/03/11/news_75668/Bi_urteko_pandemiaren_memoria.pdf

behar izan ziren egokitzapenak ahaztu gabe. Horiek herritarren bizitzako arlo guztiei eragin zieten eta inpaktua desberdina izan zen hainbat faktorek baldintzatuta, besteak beste, hauek: adina (haurrak eta gazteak), zaugarritasun ekonomikoa, bakardade-egoera, baztertze sozialeko egoera, eta abar. Horiek guztiak baloratu beharko dira, ahaztu gabe bere onera itzultzeko helburua daukan gizarte baten berezko alderdi positiboak ere antzematea, argi baitago horiek ere egon direla.

Jakin badakigu osasun publikorako arrisku handikoak izan daitezkeen gaixotasun transmitigarriekin lotutako larrialdiek osasunaren gaineko zuzeneko ondorioak ez ezik beste ondorio batzuk ere eragin ditzaketela: osasun-sistemaren erantzun-arazoak zerbitzuen eskaria handitzearen ondorioz, oinarritzko zerbitzuekin jarraitzeko zailtasunak, funtsezko produktuen eta osasun-produktuen hornidura falta, jarduera ekonomikoaren murrizketa eta horrek dakarren atzeraldi ekonomikoa, ohitura sozialak egokitzeko eta jarduerak erregulatzeko neurrien ondorioz herritarren gaineko inpaktu sozial eta emozionala, eta azkenik, kontuan hartu behar diren alarma sozialeko egoera potentzialak.

Horiek horrela, gerta daiteke osasun-larrialdia espero baino handiagoa eta luzeagoa izatea eta larrialdi horrek erantzun-gaitasuna gainditzea; eta hori gertatzen denean, partaidetzarekin eta ordezkaritzaekin lotutako bete gabeko beharrak agertzen dira, osasunetik haragoko beste arlo batzuei dagozkienak. Horiei ere eragiten die krisiak eta, beraz, horren ondorioak gutxitzeko neurriak ere hartu behar dira, arlo hauekin lotutakoak adibidez: gizarte-politikak, ekonomia, lana, etxebizitza, hezkuntza, etab.

Euskadin, larrialdi-egoeretan (arrisku larria, hondamendia edo lazeria publikoa) pertsonen bizitza, beren ondasunak eta ondare kolektiboa babesteko eta sorosteko neurriak babes zibileko planen esparruan antolatzen dira, Larrialdiak Kudeatzeko Legearekin bat². Euskal Autonomia Orokorreko Plan orokorra Euskadiko Babes Zibileko Plana – Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea³ da, LABI izenez ezagutzen dena, eta larrialdi-mota guztiei aurre egiteko plan zuzentzailea eta antolakuntza-esparru orokorra da, baldin eta larrialdiak, bere izaeragatik edo zabalpenagatik, edo administrazio bat baino gehiago koordinatu behar direlako, zuzendaritza autonomikoa behar badu. Segurtasun Publikoaren, Larrialdien eta Babes Zibilaren arloko eskumena daukan saileko titularrari dagozkio hori aktibatzea, horren zuzendaritza bakarra eta koordinazioa, baina horrek ez du baztertzen lehendakariak ahal horiek hartzea, baldin eta larrialdiaren zabalpena edo intentsitatea bereziki larria bada; edo estatuko agintari batek hartzea, baldin eta autonomiaz gaindiko interesa existitzen bada eta Interes Nazionalako Deklarazioaren edo alarma-egoeraren deklarazioaren bidez ezarri bada.

² 1/2017 Legegintzako Dekretua, 2017ko apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

³ 153/1997 Dekretua, Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta beste Dekretu honen bidez aldatutakoa: 1/2015 Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita berrazterketa berezi bat egitea «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planean.

Euskadin, Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean ezartzen denaren arabera, Osasun Sailari dagozkio, osasun agintaritza den aldetik, osasun publikoaren arloko alerta-egoera mota guztietan osasun-jarduketak koordinatzeko ahalak; eta beraz, estrategia ikuspuntu sanitariotik lideratzen du, Osasun Mundu Erakundearen eta erreferentziako beste erakunde batzuen gidalerroak aplikatuz.

Osasuneko larrialdi-egoerek osasun-asistentziaren arlotik kanpo ere (edo beste sistema batetik kanpo, hala badagokio) eragina izaten dutenean eta herritarren bizitzako ia arlo guztiei eragiten dietenean, babes zibileko arau-tresnek eskain dezakete inplikaturako arlo guztien arteko koordinaziorako, Administrazio Publiko guztien partaidetzarako eta jarduketa-maila guztien arteko (tokikoa, autonomikoa eta estatala) integrazioarako eta homogeneizaziorako esparrua. Horrez gain, tresna horiek eragin handiena jaso duen sistemari edo arloari lagundu ahal diote, sistema edo arlo hori bere misioan zentratu ahal izan dadin.

Labur azaldu beharko bagenu LABI - Euskadiko Babes Zibileko Planak zer onura ekarri dituen erakundeek COVID-19aren ondoriozko pandemia egoerari eta osasun-krisiari erantzuna emateko orduan, nabarmendu beharko genuke Eusko Jaurlaritzak krisiari emandako erantzunaren euskarria izan dela. Lehendakaria buru zuela eta Bizi Berri Planaren gidaritzapean, krisiaren kudeaketako hiru alderdi hauek barne hartu ditu: osasun-asistentziaren antolaketa, gobernantza eta gizarte ohituren egokitzapena – jardueren erregulazioa, eta suspertze ekonomikoa.

LABI erakunde arteko (udalak, foru-aldundiak, gobernu eta estatua) eta sailarteko ordezkari-tza-foroa izan da, batera jarduteko eta hartutako erabakiak berresteko foroa. Erabakiak hartzeko, bere egituraren barruan aholkularitza zientifiko-teknikoa izan du. Azkenik, bere funtzionamendua ezaguna, aurreikusteko modukoa eta ordenatua izan da, eta ikuspuntu sozialetik eta informatibotik erreferentzia izan da⁴.

Lehendakaritzak 2022ko martxoaren 11n argitaratutako “Bi urteko pandemiaren memoria”⁵ testuak gorago aipatutako alderdiak azpimarratzeaz gain, erakundeek emandako erantzunaren kudeaketan foru aldundiek eta udalek LABIren aholku-batzordearen bidez emandako laguntza ere nabarmentzen du, eta beste hau ere: “LABI elkarrizketarako eta adostasunerako gunea izan da, eta udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen-dinamika horretan lagundu du. Koordinazio hori jardunbide egokia izan da, eta nabarmendu egin behar da”.

⁴ Osasun Sailak aldiro-aldirotu buletin epidemiologikoa argitaratu du, gizarteari eta hedabideei zuzenduta. 2020ko martxoaren 18an argitaratu zen lehen aldiz. Egun horretatik 2021eko urriaren 8ra arte lan-egun guztietan argitaratu zen. 2021eko urrian, egoerak hobera egin duenez, astean behin argitaratu zen.

Geroago, bi astean behin. Buletin guztiak hemen daude: <https://www.euskadi.eus/koronabirusaren-eboluzioaren-inguruko-datuen-buletina/web01-a2korona/eu/>

⁵ “Etorkizunerako ikasitakoak. Bi urteko pandemiaren memoria. 2022ko martxoaren 11”. Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako dokumentua.

https://bideoak2.euskadi.eus/2022/03/11/news_75668/Bi_urteko_pandemiaren_memoria.pdf

Ezin da aipatu gabe utzi bi urte horietan erakundeek pandemiaren ondoriozko osasun publikoaren larrialdiari erantzuteko orduan izandako zailtasunetako bat lege-esparruarekin lotutakoa izan dela; esparru horrek ez baitzien horrelako krisi larri bati aurre egiteko irtenbideei behar besteko babes juridikorik ematen, ez babes zibileko araudiaren esparruak ezta osasun publikoarenak ere. Aldi horretan, krisiari aurre egiteko Estatuaren lege-babesa bi eremutan banatuta egon zen: batetik, alarma-egoeraren esparruan, bi alditan, guztira bederatzi hilabetez, indarrean egon zena; eta bestetik, legedia arruntaren esparruan, gainerako aldietan. Kontuan hartu behar da alarma-egoeraren gobernantza-esparruak, deklarazioaren Dekretuak ezartzen duenaren arabera, nolako konfigurazioa duen, halakoak izango direla autonomia erkidegoen erabaki-gaitasunak herritarren oinarritzko eskubideei edo, besteak beste, alarma-egoera horren aktibazioarekin edo amaierarekin lotutako beste kontu batzuei dagokienean. Dena den, alarma-egoerarik gabeko aldietan zalantzan jarri da babes zibileko tresnek gaitasuna ote duten, beren kabuz, zirkulatzeko etabiltzeko oinarritzko eskubideei eragiten dieten neurriak aplikatzeko; izan ere, neurri horiek alarma-egoeraren babesean baino ezin izan dira zuzenean aplikatu (eta hori 2020ko martxotik maiatzera bitarteko “erabateko konfinamendua” ezartzeko ere egokia izan ote zen zalantzan jarri du Konstituzio Auzitegiak), eta alarma-egoerarik gabe nahitaezkoa izan da neurri horiek judizialki berrestea (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia eta Auzitegi Gorena, hala badagokio). Osasun-agintaritzekin ere berdin gertatzen da; izan ere, horiek pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdia prebenitzeko, geldiarazteko eta murrizteko salbuespenezko neurriak hartzeko eskumenak dituzte, legedi arruntan ezarritakoak, baina neurri horiek oinarritzko eskubideak murrizten badituzte, berrespen edobaimen judiziala behar dute. Covid-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Euskadiko Lege bat onartu da⁶ eta horrek argitu du, ahal zuen neurrian, Euskadiko erakundeen eskumenen esparruko jarduketan ziurtasun juridikoa.

Egoera juridiko horretaz gain, nabarmendu behar da pandemian zehar egoera aldatzen joan dela, besteak beste, osasun-protokoloei eta neurri sozialei dagokienean, hasieran arriskuaren ezagutza urria baitzen eta pandemian zehar horren ikerketan aurrerapenak egin baitira. Aurretik ezarritako arrisku-mailen irizpideak interpretatzeko orduan ere modulazioak gertatu dira, gaixotasun berak hurrenez hurrengo olatuetan izan dituen eragin desberdinen ondorioz.

Babes Zibilaren arloan Larrialdi Plan Bereziak prestatzen dira beren izaeragatik metodologia tekniko-zientifikoa behar duten arrisku zehatzei aurre egiteko, bai jarduera-sektoreen arabera, larrialdi-motaren arabera edo ekintza zehatzen arabera. Arrisku horiek Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragin espezifikoarengatik, ezinbestekoa da plan berezi horiek egitea, arriskuen analisiaren emaitzetan oinarrituta⁷. Horrelako plan batek eskatzen du arriskua ondo ezagutzea eta hartu beharreko neurriak eta erantzunak maila operatiboan ondo zehaztea; eta horregatik ez da oso egokia “Larrialdi Plan Berezia” izeneko lege

⁶ 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa.

⁷ 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalari buruzkoa.

figurarekin bat datorren erantzun bat planteatzea etor litekeen pandemiaren ondoriozko osasun-publikoaren arloko larrialdi bati aurre egiteko.

Aurreko guztiagatik, erakundeek etor litekeen pandemiaren ondoriozko osasun publikoaren arloko larrialdi-egoera bati eman beharreko erantzuna antolatzeke, egokiagotzat jotzen da horrelako egoerei aurre egiteko LABI-Euskadiko Babes Zibileko Plana Konfiguratzeko Prozedura bat ezartzea. Horrek esan nahi du LABIren testuak, orokorra eta balioaniztuna denez, balio izaten eta indarrean jarraitzen duela erabat, eta haren xedapenek horrelako larrialdietarako konfigurazio zehatz bat hartu ahal izango dutela. Hala ere, esperientzia daukagu eta horri esker LABI are gehiago egokitu ahal dugu, bere gobernantzaren definizioa zehaztuz, zuzendaritza- eta kudeaketa-arloetako misioak eta funtzioak osatuz, batzorde zientifiko teknikoa definituz eta aktibatzeke irizpideak eta erabakiak hartzeke zein herritarrei informatzeko funtsezko alderdiak zehaztuz; besteak beste, etorkizuneko erantzun integral eta malgu bat prestatu ahal izango da, zuzendaritza bakar baten menpe egongo dena, horrelako larrialdi bati aurre egiteko.

LABI-Euskadiko Babes Zibileko Plana Konfiguratzeko Prozedura hau Segurtasun Saileko programaren arabera landu da. Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak azaldu zuen programa hori Eusko Legebiltzarrean, 2020eko urriaren 21eko bere interbentzioan, eta orduan aurkeztu zuen transmisio-gaitasun handiko gaixotasun larriei aurre egiteko berariazko larrialdi plan berezia lantzeko konpromisoa. Helburu hori Gobernu Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko bilkuran onartutako Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrean (2020-2025) agertzen da eta horren barruan jasota daude arriskuen, jarduketan eta baliabideen analisiak eta aurreikuspen orokorrak arlo hauei dagokienean: herritarren segurtasuna, larrialdiak, bide-segurtasuna eta herritarren elkarbizitzari eta Euskadiko ondasunen eta pertsonen segurtasunari eragiten dieten beste batzuk.

Pandemiaren ondoriozko osasun publikoko larrialdi bati aurre egiteko, LABI- Euskadiko Babes Zibileko Plana Konfiguratzeko Prozedurak Euskadiko Babes Zibileko Batzordean aldeko txostena jaso du, 2022ko ekainaren 22ko ezohiko bilkuran⁸. LABI- Euskadiko Babes Zibileko Planaren artikuluetan jasotakoaren arabera, planaren inplementazioari eta eranskin gisa erantsi beharreko dokumentuen garapenari dagokienez, Prozedura Pandemiei aurre egiteko Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) aholku-batzordearen ezohiko bilkuran aurkeztu da, 2022ko azaroaren 7an, gai-zerrendako puntu bakarra izanik⁹. Jaurlaritzaren Kontseiluak 2022ko azaroaren 22an egindako bileran eman zaio erabakiaren berri.

⁸ Larrialdiak Kudeatzeko Legearen 11. eta 14. Artikuluak

⁹ V. ATALBURUA. ATAZAREN EZARPENA ETA MANTENIMENDUA. LABI- Euskadiko Babes Zibileko Plana

1. SARRERA

153/1997 Dekretuak, ekainaren 24koak, Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duenak eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituenak, onartu zuen Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI) Euskadiko Babes Zibileko Plana (Hutsen zuzenketa, EHAA 148 zk., 1997/08/06) (Hutsen zuzenketa, EHAA 17 zk., 1998/01/27) eta urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatu zuen, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi» Euskadiko Babes Zibileko Planaren ezohiko berrikusketa onartzen duenak. (EHAA 14 zk., 2015/01/22).

Euskal Autonomia Erkidegoan, plan hori da larrialdien kudeaketa antolatzekeo tresna nagusia; hor dauzkagu zehazturik batetik, Euskadin plangintza-lan horrek zein irizpide orokorri jarraitu behar dion; eta bestetik, plangintza berezirik ez duten eta zuzentze edo koordinazio autonomikoa behar duten hondamendi-larrialdiei aurre egiteko antolaketa-esparru orokorra edo arrisku anitzekoa.

Prozedura honen xedea da zehaztea, lortu dugun esperientzia erabiliz, nola interpretatu antolakuntza-eredu horretako puntuak, pandemiaren ondoriozko osasun publikoko larrialdi bati aurre egin behar zaionean.

Euskadiko Babes Zibileko Planak (aurrerantzean LABI) ezartzen duen antolakuntza-eredu orokorreko puntu guztiek erabateko balioa izaten jarraitzen dute eta, horrez gain, dokumentu honetako hurrengo ataletan azaltzen da nola zehaztuko diren plan horretako xedapen orokorrak, pandemiaren ondoriozko osasun larrialdi baten aurrean.

Prozedura hau Babes Zibileko Planeko dokumentuari eranskin gisa gehitzen zaio eta dokumentu horren testua web-orri honetan dago: www.euskadi.eus/112.

Pandemiaren ondoriozko osasun publikoko larrialdi baten aurrean LABIren eginbeharra zein den idazpuru, atalburu eta atal hauetan zehazten da:

LABIKO IDAZPURUA	ATALBURUAK / ATALAK
Atariko idazpurua	0. Eginkizunak
	1. Lege-esparrua
IV. idazpurua. Zuzendaritza eta Koordinazio Arau Orokorrak	3. Babes Zibileko Agintari Autonomikoak 3.1. Segurtasuneko sailburua 3.2. Lehendakaria

V. idazpurua. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilaren Antolaketa Orokorra	I. atalburua. EAE-KO BABES ZIBILEKO LURRALDE PLANAREN ZUZENDARITZA-EGITURA 1. Zuzendaria 2. Aholku Batzordea 3. Informazio Kabinetea
	II. atalburua. EKINTZA EGITURA
	III. atalburua. OPERATIBITATEA 2. EUSKADIKO BABES ZIBILEKO LURRALDE-PLANA AKTIBATZEA 2.1. Kontzeptua 2.2. Aplikazio-moduak, larrialdi-fasearen edo –egoeraren arabera
	IV. atalburua. BABES ETA KONPONKETA NEURRIAK 1. Babes-neurriak 2. Biztanleei informazioa ematea

Taula: Pandemiaren ondoriozko osasun publikoko larrialdi baten aurrean LABiren eginbeharra zein den, idazpuru, atalburu eta atal horietan zehazten da.

2. ATARIKO IDAZPURUA

ATARIKO IDAZPURUAREN BARRUAN, LABIREN EGINKIZUNAK atalean xedatutakoak balio izaten jarraitzen du eta, horrez gain, pandemiari aurre egin behar bazaio, honela zehaztuko da:

a) EGINKIZUNAK

- Erantzun malgua ematea, larrialdiaren magnituderako egokia dena, krisi globalari erantzuteko ardatz guztiak barne hartuta: osasun-estrategia, suspertze sozioekonomikoa eta gobernantza, eta jardueren erregulazioa eta gizarte ohituren egokitzapena.
- Aurreikusteko eta aurrea hartzeko beta emango duen jarduketa-esparru bat izatea, larrialdiari aurre egiteko, bere ondorioak murrizteko eta gerora, pandemiaren bilakaera dela eta, birusarekin batera modu jasangarrian bizi ahal izateko.
- Krisiari aurre egiteko, Euskadiko Administrazioetan erakundeen arteko eta sailarteko partaidetza eta koordinazio egokia bermatzea.

- Osasun Publikoaren estrategiari euskarria ematea, pandemiaren ondoriozko osasun publikoaren arloko larrialdi egoeretan, osasun-jarduketak koordinatzeko.
- Jarduketa-mailak definitzea (analisiak eta ekintza, neurriak proposatzea, erabakia), baita maila bakoitzaren barruko erantzukizunak eta existitu behar diren erantzun-lerroak ere.
- Antolaketa-egitura eta prozedurak aurreikustea.
- Aktiba litezkeen maila goragoko edo estatu mailako planekin erabateko koordinazioa sortzea.

b) LEGE-ESPARRUA

ATARIKO IDAZPURUAren barruan, LABIren LEGE-ESPARRUA atalburuan jasota dauden lege-erreferentziez gain, pandemia kasurako beste hauek zerrendatzen dira:

Estatua

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
- 4/1981 Lege Organikoa, ekainaren 1ekoa, Alarma, Salbuespen eta Setio Egoerei buruzkoa
- 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa
- 14/1986 Legea, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzko Lege Orokorra
- 33/2011 Legea, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorra
- 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioari eta Kalitateari buruzkoa
- 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalari buruzkoa

Euskadi

- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa
- 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa
- 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlearitzari buruzkoa

I. ERANSKINean agertzen dira Eusko Jaurlaritzak, larrialdiaren gobernantzarekin lotuta, Covid-19aren ondoriozko osasun-larrialdian zehar onartu dituen agindu eta dekretu garrantzitsuenak.

3. ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIO ARAU OROKORRAK

Segurtasun publikoaren, Larrialdien eta Babes Zibilaren arloan eskumena daukan Saileko titularrari dagozkio Euskadiko Babes Zibileko Planaren zuzendaritza bakarra eta koordinazioa, baina horrek ez du baztertzen lehendakariak ahal horiek hartu ahal izatea, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Zuzendaritza hori egikaritzeko, Euskadiko Babes Zibileko plana aktibatu behar da; eta horretarako, Segurtasun publikoaren, Larrialdien eta Babes Zibilaren arloan eskumena daukan Saileko titularrak larrialdia deklaratu behar du, bere erabakiz ala beste administrazio publiko baten erabakiz; beti ere, hala badagokio, pandemia baten testuinguruan garatzen den araudi espezifikoari kalterik egin gabe, honi, esaterako: COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legea, osasun-larrialdiko egoeraren adierazpena arautzen duena.

Aurrekoari kalterik egin gabe, LABIren ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIO ARAU OROKORRAK izeneko IV. idazpuruan ezarritakoak, pandemiaren ondoriozko larrialdi bati aurre egiteko, hauexek hartuko ditu kontuan:

Pandemia batean, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana aktibatzea eragiten duten kausak gertatzen badira, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, larrialdiaren nolakotasunagatik, hedaduragatik edo administrazio bat baino gehiago koordinatu behar direlako autonomia-mailako zuzendaritza behar denean eta testu honetako “Operatibitatea” izeneko 5. atalburuan deskribatzen diren aktibazio-irizpideak gertatzen direnean:

Segurtasun Publikoaren, Larrialdien eta Babes Zibilaren arloko eskumenak dituen Saileko titularrari dagozkio LABI aktibatuko dela deklaratzeko eta aplikatzeko. Horretarako, aurretik Osasun Publikoaren arloko agintaritzak daukan pertsonak deklaratu du eta zehaztu du Euskadi osasun publikoaren arloko larrialdi batean dagoela. Gainera, nahitaezkoa da osasun arloko eskumena daukan Saileko titularrak LABI aktibatzeke eskaera egitea.

Osasun-larrialdiko egoerak irauten duen bitartean, pandemiaren intentsitatea edo hedadura bereziki larria dela ikusten bada, lehendakariak, hargatik eragotzi gabe, kasu bada, alarma-egoera deklaratzeko ondorioz agintari eskuordetu gisa dagozkion ahalmenak, bere gain hartuko ditu, halaber, larrialdiko jardueren zuzendaritza bakarra eta koordinazioa, bai eta osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean LABI-Euskadiko Babes Zibileko Planaren aurreikusitako jarduerak ere. Lege hauek ematen diote horretarako ahalmena: Larrialdiak Kudeatzeko Legeak 35. artikuluan, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 8. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak 10. artikuluan edo, hala badagokio, egoera hori arautzen duen araudi espezifikoak (adibidez, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4.2 artikulua).

4. ANTOLAKUNTZA

LABIn, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BABES ZIBILAREN ANTOLAKETA OROKORRA izeneko V. idazpuruaren barruan, I. ZUZENDARITZA-EGITURA eta II. EKINTZA EGITURA atalburuetan ezarritakoari kalterik egin gabe, pandemia baten ondoriozko larrialdi bati aurre egiteko, jarraian azaltzen diren beste hauek ere kontuan hartuko dira:

Bi jarduketa-mailako planteamendu bat proposatzen da. Alde batetik, erabaki-maila bat, eta hor zuzendariaren eginkizunak zehaztuko dira, Aholku Batzordea eratuko da Euskadiko erakunde guztietako ordezkariekin eta Komunikazio arloa zehatzago deskribatuko da; eta bestetik, maila tekniko bat, Aholku Batzordearen Batzorde Teknikoaz osatutakoa, egoeraren analisia eta aurreikuspena egiteko eta neurriak proposatzeko helburua izango duena.

Aholku Batzordeak batzorde tekniko bat izango du. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planeko zuzendariak izendatuko du batzorde tekniko hori eta inplikaturako zientzia- eta kudeaketa-arloko ibilbide profesional eta entzute handiko pertsonak aukeratuko ditu. Lehendakariak edo berak izendatutako pertsonak zuzenduko du eta batzorde horrek LABIn aurreikusten diren ekintza-taldeen eginkizun guztiak bere gain hartuko ditu eta integratuko ditu, baldin eta eginkizun horiek lehendakariak berak ekintza-talde horiei zein sor daitezkeen beste batzuei berariaz esleitzen ez badizkie. Beharrezkoa izanez gero, antolaketa-erregelamendu bat ezar daiteke.

a) ZUZENDARITZA EGITURA

i. ZUZENDARIA

LABInren barruan, ZUZENDARIA atalean xedatutakoa erabat baliozkoa da eta pandemia kasurako honela zehazten da:

- Aholku Batzordeko kideak, Batzorde Teknikoaren koordinatzailea eta Batzorde Teknikoko kideak izendatzea.
- Batzorde Teknikoa deitzea, osorik edo zati batean, larrialdiaren arabera.
- Komunikazio- edo informazio-arloa eratzea.
- Beste autonomia erkidego batzuekin koordinatzea horretarako ezarritako organoen bidez, neurri koherenteagoak eta egokiagoak hartzeko xedez.
- Osasunaren babeserako erantzunaren antolaketa ezartzea hauei dagokienean: kasuen zaintza eta kontrola, erantzun sanitarioa eta arlo horretako asistentziaren antolaketa.
- Erantzun komunitarioaren antolaketa ezartzea, jardueren erregulaziotik hasita, gizarte eremu desberdinetan gizarte ohiturak egokitzeraino.
- Erantzunaren antolaketa ezartzea, ekonomiaren gaineko kalteak eta enpleguaren galera murrizteko, eta suspertze sozioekonomikoa sustatzeko.

- Krisi larria eta luzea izan daitekeelakoan, erabakiak hartzeko irizpideen arteko hierarkia bat ezartzea; pertsonen bizitzak zaintzeari eta ospitale- eta asistentzia-sistemaren funtzionamenduari lehentasuna emanez; gizarte-, osasun-, hezkuntza-, ekonomia-, merkataritza-, enpresa- edo industria-arloetan kalte-egoera konponezinak ekidinez, ponderazio orekatua bilatuz eta eragindako inpaktua baloratuz.
- Erreferentzia-panel bat ezartzea, adierazleez eta horien arabera erantzun komunitarioa emateko gidalerroez osatutakoa, baldin eta pandemia denboran luza daitekeela eta haren eragina zabal daitekeela aurreikusten bada.
- Detekzio goiztiarrari, infekzio-iturriei eta zaintza epidemiologikoari buruzko datuak ematea eta jakinaraztea agintari hauei: pertsoneri eta ondasunei kalteak eragin diezazkieketen gertaeren berri izan behar dutenei.
- Bidaliko den informazioa ezartzea, gardentasuna, adierazleak, kasuak, arlo kritikoenen arabera banatuta.
- Pandemiaren bilakaerari buruzko informazioa ematea, aldian-aldian ezarritako adierazleak argitaratuz.
- Larrialdi-egoera eta planaren ezarpena jakinarazi behar zaizkien erakunde guztiei informatzea, eta berariaz hauei ere bai: Barne Ministerioko Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiari Babes Zibileko Larrialdietarako Jarraipen eta Koordinazio Zentro Nazionalaren bidez (CENEM) eta Osasun Zuzendaritza Nagusiari Osasun Larrialdietako Alerta eta Koordinazio Zentroaren bidez.

ii. AHOLKU BATZORDEA

Aholku Batzordeko kideak hauek izango dira:

- Arlo hauen gaineko eskumenak dituzten Saitetako titularrak:
- Osasuna
- Segurtasun Publikoa, Larrialdiak eta Babes Zibila
- Ekonomiaren Garapena
- Justizia
- Gizarte Politikak
- Ekonomia eta Ogasuna
- Gobernantza Publikoa
- Garraioak
- Hezkuntza
- Turismoa
- Merkataritza
- Kontsumoa
- Kultura
- Bozeramailletza / Lehendakaritza
- Osakidetza Ente Publikoko zuzendari nagusia
- Lurralde Historikoetako diputatu nagusiak
- EUDELeke presidentea

- Euskadiko hiru hiriburuetako alkateak
- Gobernuak EAEn daukan ordezkartzaren ordezkaria
- Batzorde Teknikoaren koordinatzailea

Larrialdiaren ezaugarri zehatzak eta bilakaera zein diren, Planeko zuzendariak larrialdiaren kudeaketarako beharrezkoak diren beste administrazio edo entitate batzuk ere deitu ahal ditu.

iii. KOMUNIKAZIO ARLOA

Planeko Zuzendaritzaren Komunikazio Kabineteak lideratzen eta osatzen du komunikazio arloa, eta hori da larrialdian zehar herritarrei, organismoiei eta erakundeei informazioa bideratzeko eta zabaltzeko organismo ofiziala.

Arlo hau eratuta egongo da Planeko zuzendariak beharrezkotzat jotzen duen denboraz eta LABI Babes Zibileko Planean sartuta dauden beste informazio-kabinete batzuen (pertsona publikoez zein pribatuez osatutakoak) laguntza jaso ahal izango du.

LABIren INFORMAZIO KABINETEA atalean ezarritakoaz gain, pandemia-kasurako beste eginkizun hauek ere ezartzen dira:

- Euskadiko pandemia egoerarekin eta bilakaerarekin lotutako adierazleen bilakaerari buruzko aldizkako buletin bat prestatzea eta zabaltzea.
- Herritarren esku jartzea ahalik eta informazio fidagarriena eta ahalik eta datu gehien modu irekian eta informazioaren gardentasuna bermatzea.
- Hauei buruzko informazioa prestatzea eta zabaltzea:
 - Gaixotasun berriari buruzko informazio orokorra
 - Nola jardun azaltzeko jarraibideak
 - Autobabesari buruzko jarraibideak eta aholkuak
 - Dibulgazioko material informatiboa
 - Garatutako araudia eta hartutako neurriak
 - Neurriak ulertzeko eta interpretatzeko informazioa eta zein kanaletara jo behar den azaltzea.
 - Txertaketa-prozesua
- Erantzun komunitarioko plana gizartean zabaltzea. Neurri garrantzitsua da, pedagogia soziala zehaztasunez eta erantzukidetasunez egitea estrategikotzat jotzen baita.
- Egokitzea joz gero, zabalpenerako eta komunikaziorako teknologien eta aplikazio mugikorren garapena sustatzea.
- Herritarren ulermen-maila aztertzea eta aintzat hartzea, hainbat alderdi kontuan hartuta: adin-taldeak, gaixotasunarekiko edo neurriekiko kolektibo zaurgarriak, jaioterria, egoera sozioekonomikoa, besteak beste; eta ahalik eta mezu egokienak zabal daitezela sustatzea.

b) EKINTZA EGITURA

II. EKINTZA EGITURA atalburuan ezarritakoari kalterik egin gabe, pandemia baten ondoriozko larrialdi bati aurre egiteko, jarraian azaltzen direnak ere kontuan hartuko dira.

Aholku Batzordearen Batzorde Teknikoa sortzen da Planeko zuzendariari laguntza emateko, hurbilketa multisektoriala eta administrazio publiko guztien arteko koordinazio ona beharrezkoak diren larrialdietako alderdietan.

Haren eginkizun nagusiak dira Aholku Batzordeari laguntza ematea eta horri zein Planeko zuzendariari hauek aurkeztea: unean uneko pandemia-egoerari buruzko analisia, erreferentziak eta adierazleak biltzen dituenak, eta, beharrezkoa izanez gero, ekintza-lerroen proposamen bat eta hartu beharreko neurrien aurreikuspena, aldez aurretik Batzordeko kideen artean adostu eta koordinatutako neurriak, hain zuzen, hiru erantzun-ardatz hauetan txertatuta: sanitarioa, komunitarioa eta sozioekonomikoa.

Batzorde Teknikoa hainbat arloren arabera antolatuta dago eta arlo horietako bakoitzeko ordezkariak inplikaturako kudeaketa- eta zientzia-alderdietan ibilbide profesional eta entzute handiko pertsona bat edo gehiago izaten dira. Kudeaketa-arloetan erantzukizuna daukaten pertsonak ere egon daitezke eta horiek ere talde tekniko eta ekintza-taldeen laguntza jasoko dute. Eskema hori orokorra da eta pandemiak Administrazioko arlo desberdinetan eragin ditzakeen baldintzetara eta intzidentziara egokitu beharko da.

Beste pertsona batzuek ere parte har dezakete Batzorde Teknikoan, baldin eta Planeko zuzendariak pertsona horiek izendatzen baditu uste duelako Batzorde Teknikoan egon behar dutela. Batzordeak kide gehiago izan ahal ditu eta bileretara unean-unean beharrezkotzat edo egokitatzat jotzen diren adituak deitu ahal ditu.

5. OPERATIBITATEA

LABIn, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BABES ZIBILAREN ANTOLAKETA OROKORRA izeneko V. idazpuruaren barruan, OPERATIBITATEA III. atalburuan ezarritakoari kalterik egin gabe, pandemia baten ondoriozko larrialdi bati aurre egiteko, jarraian azaltzen direnak ere kontuan hartuko dira.

EUSKADIKO BABES ZIBILEKO LURRALDE-PLANA AKTIBATZEA

Pandemiaren ondoriozko osasun publikoko larrialdi bati aurre egiteko, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana aktibatuko ahal izango da, Osasun Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia- egoera deklaratzeko duenean eta horrek Euskadiri eragiten dionean edo eragingo diola aurreikusten denean, baldin eta herritarren artean transmisio handia eta jarraitua badu eta egoeran hain larria denean non testu honetan jasotako erantzun-egitura, guztiz edo zati batean, martxan jartzea beharrezkoa den.

Larrialdi-faseen eta –egoeren arabera aplikazio-modalitateak larrialdi-egoeraren, bilakaeraren eta lurralde-eragin zehatzaren menpe egongo dira, Euskadiko Babes Zibileko Planeko testuaren OPERATIBITATEA III. atalburuan ezarritakoaren arabera.

Lehendakariak bere gain hartuko ditu LABIren zuzendaritza bakarra eta koordinazioa eta horrek ekarriko du Euskadiko Babes Zibileko Planeko larrialdi fasearen 2 edo 3 egoera deklaratzeko.

Pandemiaren ondorioz, Babes Zibileko Plana 2 edo 3 egoeran aktibatzen denean, eta lehendakariak zuzendaritza bere gain hartzen duen guztietan, eraginda dauden erantzun-plan guztiak integratuko dira eta plan horietan eskudunak diren organizazioak plan honetako Aholku Batzordean ordezkatuta egongo dira.

6. BABES ETA KONPONKETA NEURRIAK

LABIn, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BABES ZIBILAREN ANTOLAKETA OROKORRA izeneko V. idazpuruaren barruan, BABES ETA KONPONKETA NEURRIAK IV. atalburuan ezarritakoari kalterik egin gabe, pandemia baten ondoriozko larrialdi bati aurre egiteko, jarraian azaltzen diren alderdiak ere kontuan hartuko dira.

a) KUDEAKETA ARLOAK

Pandemiaren zein kudeaketa-arlotan antolatu behar dira babes- eta konponketa-neurriak? Hona hemen, arlo horien proposamena:

- Komunikazioa
- Erreferentzia-panela eta adierazleak, horiekin lotutako neurriak barne.
- Kasuen zaintza eta kontrola
- Erantzun sanitarioa
- Asistentziaren antolaketa
- Erantzun komunitarioa
- Suspertze sozioekonomikoa

b) BIZTANLEEI INFORMAZIOA EMATEA

LABIren BIZTANLEEI INFORMAZIOA EMATEA atalburuan ezarritakoari kalterik egin gabe, pandemia baten ondoriozko larrialdi bati aurre egiteko, jarraian azaltzen diren alderdiak ere kontuan hartuko dira.

Biztanleei informazio hauek emango zaizkie:

- Gaixotasun berriari buruzko informazio orokorra
- Nola jardun azaltzeko jarraibideak
- Autobabesari buruzko jarraibideak eta aholkuak
- Dibulgazioko material informatiboa
- Garatutako araudia eta hartutako neurriak
- Neurriak ulertzeko eta interpretatzeko informazioa eta zein kanaletara jo behar den azaltzea.
- Txertaketa-prozesua
- Erantzun komunitarioko plana gizartean zabaltzea. Neurri garrantzitsua da, pedagogia soziala zehaztasunez eta erantzukidetasunez egitea estrategikotzat jotzen baita.
- Egokitzea joz gero, zabalpenerako eta komunikaziorako teknologien eta aplikazio mugikorren garapena sustatzea.
- Herritarren ulermen-maila aztertzea eta aintzat hartzea, hainbat perspektiba kontuan hartuta: adin-taldeak, gaixotasunarekiko edo neurriekiko kolektibo zaugarriak, eta ahalik eta mezu egokienak zabal daitezela sustatzea.

I. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAK, LARRIALDIAREN GOBERNANTZAREKIN LOTUTA, COVID-19AREN ONDORIOZKO OSASUN-LARRIALDIAN ZEHAR ONARTU DITUEN AGINDU ETA DEKRETU GARRANTZITSUENAK

AGINDUA, 2020ko martxoaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Segurtasuneko sailburuari eskatzen baitzaio aktiba dezala formalki Euskadiko Herri Babeseko Plana (Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi), Covid-19aren hedapenak eragindako alerta sanitarioaren aurrean (EHAA 2020/03/14).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001576e.pdf>

AGINDUA, 2020ko martxoaren 13koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, Covid-19 delakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta (EHAA 2020/03/14).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001578e.pdf>

6/2020 DEKRETUA, martxoaren 13koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzen baititu, Covid-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean (EHAA 2020/03/14).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001574e.pdf>

AGINDUA, 2020ko martxoaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan, Covid-19 koronabirusaren egoera eta bilakaera dela eta (EHAA 2020/03/14).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001575e.pdf>

7/2020 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lehendakariarena. Horren bidez, indarrrik gabe uzten da Eusko Legebiltzarrerako 2020ko apirilaren 5eko hauteskundeak egitea, Covid-19aren ondoriozko osasun-krisia dela-eta, eta deialdi berria egitea zehazten da. (EHAA 2020/03/18)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001627e.pdf>

AGINDUA, 2020ko martxoaren 27koa, Osasuneko sailburuarena, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan eta martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduan jasotako neurriak zabaltzeko eta interpretatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen eremuko egoitza-zentro publiko eta pribatu guztietan aplikatu daitezkeen, eta agindu horiek garatzeko esku-hartze neurriak hartzeko (EHAA 2020/04/01).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001758e.pdf>

AGINDUA, 2020ko martxoaren 15ekoa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren funtsezko zerbitzuei buruzkoa (EHAA 2020/04/03).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001793e.pdf>

Beste honek aldatu zuen:

AGINDUA, 2020ko martxoaren 24koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren funtsezko zerbitzuei buruz sailburu berak eman zuen 2020ko martxoaren 15eko Agindua aldatzen duena (EHAA 2020/04/03).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001794e.pdf>

AGINDUA, 2020ko apirilaren 2koa, Osasuneko sailburuarena, gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituen SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela eta (EHAA 2020/04/07).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001818e.pdf>

Hutsen zuzenketa (2020/04/08):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001833e.pdf>

AGINDUA, 2020ko apirilaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldi baterako eteten baitira Euskal Autonomia Erkidegoan elikagai eta nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalak eta arautzen baita Euskadiko zenbait udalerritan denda-ibilgailuak baliatuz denda ibiltariak garatzen duten jarduera SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak sortutako pandemia dela eta (EHAA 2020/04/08).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001835e.pdf>

AGINDUA, 2020ko apirilaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira SND/232/2020 Agindua aplikatzeko (SND/232/2020 Aginduaren bidez, giza baliabideen eta bitartekoen arloko neurriak ezartzen dira Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) (EHAA 2020/04/08).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001834e.pdf>

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Lehendakariari eskatzen baitio Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), modulatzeko, osasun-zaintzako fase berrira egokitze (EHAA 2020/05/19).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2001996e.pdf>

10/2020 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez indarrikgabe uzten baita Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), zuzentzeko eskumenak bereganatzea. Eskumen horiek bereganatzeko erabakia

Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren bidez hartu zen. (EHAA 2020/05/19)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2001990e.pdf>

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko aurrez aurreko jarduerak berriz hastea eta irakaskuntza jakin batzuetan sartzeko azterketak eta probak egitea arautzen duena (EHAA 2020/05/23).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2002034e.pdf>

14/2020 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita deseskaladarako planaren 3. fasea gainditu dela. Horrenbestez, indargabetuta geratuko dira alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak, eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan hasiko da «normaltasun berria» (EHAA 2020/06/19).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002419e.pdf>

AGINDUA, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero (EHAA 2020/06/19).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002421e.pdf>

Hutsen zuzenketa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002496e.pdf>

AGINDUA, 2020ko uztailaren 15ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatu egiten baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero (EHAA 2020/07/16).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002784e.pdf>

AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero (EHAA 2020/07/29).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2003041e.pdf>

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 7koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko uztailaren 28koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero (EHAA 2020/08/11).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/08/2003221e.pdf>

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Segurtasuneko sailburuari eskatzen baitzaio aktiba dezala formalki Euskadiko Herri Babeseko Plana (Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi), COVID-19aren hedapenak eragindako alerta sanitarioaren aurrean (EHAA 2020/08/17).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/08/2003302e.pdf>

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 14koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, COVID-19 delakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta (EHAA 2020/08/17).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/08/2003303e.pdf>

17/2020 DEKRETUA, abuztuaren 15ekoa, Lehendakariarena, zeinaren bidez Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzen baititu, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean (EHAA 2020/08/17).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/08/2003300e.pdf>

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 24koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, 2020ko nekazaritza-kanpainetarako sasoiko langileen kontratazioa erantzukizunez adierazteko betebeharra ezartzen duena, COVID-19 pandemiak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko (EHAA 2020/08/28).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/08/2003433e.pdf>

AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoaren arloko neurri bereziak hartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan eta oinarritzko osasun-eremutan sortutako COVID-19 pandemiaren agerraldi epidemikoa geldiarazteko (EHAA 2020/10/23).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004447e.pdf>

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu hori uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko aginduen bidez aldatu zen (EHAA 2020/08/19).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/08/2003330e.pdf>

AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoaren bilakaera dela eta (EHAA 2020/10/23).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004448e.pdf>

13/2021 DEKRETUA, martxoaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko (EHAA 2021/03/08).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101349e.pdf>

Beste honek aldatu zuen:

16/2021 DEKRETUA, martxoaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: 13/2021 Dekretua, martxoaren 6koa, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratzen diren, alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko (EHAA 2021/03/27).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101834e.pdf>

23/2021 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurrii buruzkoa (EHAA 2021/05/08).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102603e.pdf>

Beste honek aldatu zuen:

26/2021 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurrii buruzkoa (EHAA 2021/06/01).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103124e.pdf>

30/2021 DEKRETUA, ekainaren 18koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurrii buruzkoa (EHAA 2021/06/19).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103514e.pdf>

2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19 pandemia kudeatzeko neurrii buruzkoa (EHAA 2021/06/30).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103721e.pdf>

33/2021 DEKRETUA, uztailaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa (EHAA 2021/07/08).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/07/2103872e.pdf>

Beste honek aldatu zuen:

34/2021 DEKRETUA, uztailaren 15ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa (EHAA 2021/07/15).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/07/2104042e.pdf>

35/2021 DEKRETUA, uztailaren 23koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa (EHAA 2021/07/23).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/07/2104170e.pdf>

Beste honek zati batean eten zuen:

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 6koa, Araubide Juridikoaren zuzendariarena, 631/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako 2021eko abuztuaren 3ko autoa argitaratzeari buruzkoa. Auto hori lehendakariaren uztailaren 23ko 35/2021 Dekretuaren bigarren apartatuari buruzkoa da. Dekretu horrek bigarren aldiz aldatu zuen dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa (EHAA 2021/08/10).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/08/2104362e.pdf>

36/2021 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa (EHAA 2021/08/31).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/08/2104607e.pdf>

AGINDUA, 2021eko abuztuaren 17koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko uztailaren 14ko 148/2021 Epaiaren epaitza dela eta, zenbait jarduketa egitera agintzen duena (EHAA 2021/09/01).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/09/2104612e.pdf>

38/2021 DEKRETUA, irailaren 17koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak testu bateginean jaso, eguneratu eta zehaztekoa (EHAA 2021/09/18).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/09/2104795e.pdf>

39/2021 DEKRETUA, urriaren 6koa, lehendakariarena, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera Euskadin amaitu dela adierazten duena eta normaltasun berri batean sartzeko neurriak zehazten dituen (EHAA 2021/10/07).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/10/2105124e.pdf>

AGINDUA, 2021eko urriaren 6koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi Euskadiko Babes Zibileko Plana formalki desaktibatzea xedatzen duena. Plan hori 2020ko abuztuaren 14an aktibatu zen, COVID-19a hedatzearen ondorioz sortutako osasun-larrialdiari aurre egiteko (EHAA 2021/10/07).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/10/2105128e.pdf>

AGINDUA, 2021eko urriaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa (EHAA 2021/10/07).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/10/2105125e.pdf>

AGINDUA, 2021eko azaroaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez 2021eko urriaren 6ko Aginduan jasotako neurriak ezartzen eta modulatzeko baitira COVID-19 kutsatzeetan 14 eguneko tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gorakoa den udalerrietan –2021eko urriaren 6ko Agindua, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa- (EHAA 2021/11/17).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/11/2105869e.pdf>

AGINDUA, 2021eko azaroaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa da agindu hori (EHAA 2021/12/04).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106123e.pdf>

AGINDUA, 2021eko abenduaren 2koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko eskatzen baitzaio lehendakariari, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Larrialdiei Aurregiteko Bidea (Labi) aktibatzeke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, COVID-19 pandemiaren fase berriari aurre egin ahal izateko (EHAA 2021/12/02).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106100e.pdf>

AGINDUA, 2021eko abenduaren 2koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Larrialdiei Aurregiteko Bidea (Labi) Euskadiko Babes Zibilaren Plana, COVID-19aren pandemiaren beste fase bati aurre egiteko (EHAA 2021/12/02).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106099e.pdf>

44/2021 DEKRETUA, abenduaren 2koa, lehendakariarena, COVID-19aren pandemiak EAEn eragindako osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko duena (EHAA 2021/12/03).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106101e.pdf>

47/2021 DEKRETUA, abenduaren 14koa, lehendakariarena, zeinaren bidez xedatzen baita establezimendu, ekitaldi, jarduera eta leku gehiagotara zabaltzea Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduen bidez ezarritako Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna (EHAA 2021/12/15)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106203e.pdf>

51/2021 DEKRETUA, abenduaren 28koa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak zehazten baitira, osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioaren esparruan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko (EHAA 2021/12/28).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106427e.pdf>

2/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 28koa, lehendakariarena, zeinaren bidez luzatzen baita abenduaren 28ko 51/2021 Dekretuaren indarraldia, prebentzio-neurri espezifikoak zehazten dituen, osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioaren esparruan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko (EHAA 2022/01/28).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/01/2200491e.pdf>

AGINDUA, 2022ko otsailaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bertan behera uzten baita 2021eko azaroaren 17ko Agindua, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak buruzkoa da agindu hori. (EHAA 2022/02/04)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/02/2200600a.pdf>

5/2022 DEKRETUA, otsailaren 11koa, lehendakariarena, zeinaren bidez deklaratzeko baita EAEn amaitu dela COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera, abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuaren bidez deklaratu zena (EHAA 2022/02/12).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/02/2200730e.pdf>

AGINDUA, 2022ko otsailaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez xedatzen baita formalki desaktibatzea Larrialdiei Aurregiteko Bidea (Labi) Euskadiko Babes Zibilaren Plana, 2021eko abenduaren 2an aktibatu zena COVID-19aren pandemiaren beste fase bati aurre egiteko (EHAA 2022/02/12).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/02/2200732e.pdf>

AGINDUA, 2022ko otsailaren 11koa, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak osasun-larrialdiaren egoera amaitu dela deklaratu ondoren, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa (EHAA 2022/02/12).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/02200731e.pdf>

II. ERANSKINA

LABIREN KONFIGURAZIO-ESKEMA, PANDEMIARI AURRE EGITEKO

